

2007KO UZTAILAREN 18KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko uztailaren hemezortzian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bileraratzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Xanet Barreras Jauregi, Amagoia Naldaiz Mingo eta Xabier Arrasate Aierbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- TOKIKO GOBERNU BATZARRA EGITEAREN ALDIZKOTASUNA ETA EGITE EGUN ETA ORDUA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren Tokiko Gobernu Batzarrak egitearen aldizkotasuna eta egite egun eta orduari buruz gaia aztertu ondoren, aho batez, hauek hilean behin egingo direla erabakitzen da. Egite eguna asteazkena izango da eta ordua arratsaldeko zazpiak. Asteazken hau hilaren erdian tokatzen edo erdira gehien ingurutzen dena izango da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 6 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA HIRUEHUN ETA SEI EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (272.306,23 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- EUSKADI ENPARANTZAKO URBANIZAZIO LANEN 4. ZERTIFIKAZIOA.-

Euskadi Enparantzako urbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñigo Guibert de Encio Arkitektoak lanen 4. zertifikazioa luzatu du. Zertifikazio honen zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA BOST MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI EURO eta HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (125.658,79 €)takoa da. Lan hauek burutzen ari dena Construcciones ERGA, S.L. da.

Zertifikazio honek astelehen honetan bertan izan du sarrera udaletxean eta oraindik ez dago udal teknikariaren txostenik, baina bestalde eta abuztuan tokiko gobernu batzarrik egingo ez denez eta ordainketak asko atzera ez daitezen, konturako ordainketa egitea planteatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, Euskadi Enparantzako urbanizazio lanen 4. zertifikazioaren kontura, zenbateko bereko ordainketa onartzea erabakitzen du.

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Joxe Arregi Imazek, uztaileko asteburuetan Lazkaon egiten den "Joxe Mari Kerej-taren oroimenez III. Pala Txapelketa"rako eginiko dirulaguntza eskaera ikusirik, Tokiko Gobernu Batzarrak, eskaera aztertu ondoren, aho batez, lauehun euroko (400,- €) dirula-guntza ematea erabakitzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudala-rik.